

**2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa  
(2020-01-28an egindako Osoko Bilkuran onartutakoa eta 2020-07-23ko Udalbatzan  
aldatutakoa).**

**ATARIKOA**

Diru-laguntzen Lege Orokorra beste aurrera pausu bat da sistema ekonomikoaren hobekuntza eta arrazionalizazio prozesuan. Legearen oinarrian dauden printzipioetako bat gardentasuna da, eta legean jasotzen diren askotariko tresna ugariekin batera, berekin dakar zuzenean efizientzia eta eraginkortasun mailak handitzea diru-laguntza bidezko gastu publikoaren kudeaketan.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorren 8.1. artikulua oinarritzko izaera du, eta beraz, diru-laguntzak eman nahi dituzten udal guztiek diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu behar dute, diru-laguntzak eman aurretik eta hainbat urtetarako.

Era berean, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, 38/2003 Legearen Araudia onartzen duenak, ezartzen du diru-laguntzen plan estrategikoak politika publikoen planifikazioaren tresna gisa egituratzen direla, erabilera publiko edo interes sozialeko jardura baten sustapena duelarik helburu. Halaber, diru-laguntzen plan estrategikoen edukia arautzen du.

Horrenbestez, Urretxuko Udalak diru-laguntzen Plan Estrategiko hau onartzen du, udal diru-laguntzak ematea arautuko duten helburu estrategikoak, arauak eta printzipio orokorrak jasotzen dituen plana, baita ere horren justifikazioa eta kontrola.

**I KAPITULUA**

**DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN XEDAPEN OROKORRAK**

**1.- artikulua.** Udal honek 2020-2022 denboraldian zehar emango dituen diru-laguntzak bat etorriko dira plan honetan eta Urretxuko Udalaren diru-laguntza ematea arautzen duen Ordenantza Orokorrean aurreikusitakoarekin.

Nolanahi ere, jarraipen txostenak ikusirik eta aurrekontuan erabilgarri dagoenaren arabera, plan honetako diru-laguntza lerroak urtero eguneratu edo aldatu daitezke, baina aldaketa horrek ezingo du ekarri funtsezko aldaketarik haren osagarrietan.

**2.- artikulua.** Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezartzeko, dagozkion kontsignazioak sartu beharko dira urteari dagokion udal aurrekontuan, eta diru-laguntzak arautzeko oinarriak edo zuzeneko ematea onartzen duen erabakia onartu.

Era berean, diru-laguntzak erabakitzeko, nahitaezko baldintza izango da aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzea; horregatik haiek nola eman arautzeko oinarriak eta onartu beharreko aurrekontu kontsignazioak helburu horietara egokituko dira uneoro.

**3.- artikulua.** Plan honek hiru urteko iraunaldia izango du, hau da, 2020-2022 denboraldirako, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 11.4 artikulua dioena, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorren Araudia onartzen duena. Horretarako organo eskuduna den Udalbatzak onartzen duen unean sartuko da indarrean,

2022ko ekitaldia amaitu eta Diru-laguntza Plan Estrategiko berri bat oraindik onartu gabe egongo balitz, plan hau luzatuztat hartuko da egiten jarraituko diren jardueren lerroetan, beti ere aurrekontuan diru-atal egokia eta nahikoa baldin badago.

**4.- artikulua.** Tokiko Gobernu Batzarra da Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren exekuzioaren eginkizuna duen organoa, laguntzak edo diru-laguntzak emateko eskuduna, diru-laguntzak emateko Udal Ordenantzaren arabera.

**5.- artikulua.** Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeenentzat, eta horiek ezingo dute kalte-ordainik edo konpentsaziorik eskatu, plana zehaztuta dauden baldintzetan betetzen ez bada.

**6.- artikulua.** Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

- - Publizitatearen eta gardentasunaren printzipioa, aurrez egindako deialdi bidez, objektibitatea, gardentasuna, eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dituen, guztia emakida zuzenaren kaltetan gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakioken arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.

Printzipio hau diru-laguntza arloko publizitatean ere gauzatzen da, diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Araudiaren 30 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta modu horretan Urretxuko Udalak emandako diru-laguntza guztiak, bere lerro estrategiko, laguntza programa eta deialdi bakoitzean, hiruhileko bakoitzeko hurrengo hilabetearen argitaratuko dira Udalaren web orrian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioaren menpeko Diru-laguntzen Datu Base Nazionalan.

- Lehiakortasun askearen, berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa onuradunek bete beharreko baldintzak erabakitzean, interes orokorra guztiz asebetetzeko helburuarekin.
- Objektibotasunaren printzipioa: Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera emango dira diru-laguntzak, onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko
- Eraginkortasun eta efizientziaren printzipioak: Eraginkortasuna jarritako helburuak betetzerakoan eta efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan, kantitate eta kalitate aldetik justifikatu beharko direlarik

Aurrekontuko egonkortasunaren eta gastu erregelaren printzipioa: diru-laguntzak ematea egonkortasunaren eta gastu erregelaren printzipioari egokituko zaio, Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera.

- Diru-laguntza eskatzen duten erakundearen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasuna eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta

aztertzea.

## II KAPITULUA

### PLANAREN HELBURU OROKORRAK ETA ESTRATEGIKOAK

**7.- artikulua.** Honako hauek dira plan honen helburu orokorrak:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legean jasotako legezko agindua betetzea; 8.1 artikuluan, dagokion Plan Estrategikoa onartzera behartzen dira diru-laguntzak eman nahi duten udalak.
- Diruz lagundutako gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun mailetan modu zuzenean igotzeko eragitea, laguntza larrien emakidari eta justifikazioari egokitu beharreko araudia izaera orokor batekin arautuz.
- Diru-laguntza programetarako sarbidea optimizatzea herritarrei, beti ere gardentasun, udal irizpideen uniformetasun eta lehia libreko bermearekin.
- Diru-laguntzen udal kudeaketa arrazionalizatzea, planifikazioan zeharkakotasuna emanez, prozeduretan sistematizatzea eta ebaluaziorako teknika aurreratuko tresnak emanez.

**8.- artikulua.** Diru-laguntzen Plan Estrategikoak lortu nahi dituen helburu estrategikoak eta ondorio orokorrak honako hauek dira:

- Udalaren eskumen esparruaren barruan, interes orokorreko jarduerak sustatzeko eta laguntzeko ahalbidetuko duen tresna bat ematea Udalari.
- Udal kudeaketaren hainbat arlotan gizarte zibilaren parte-hartzea sustatzea, indartzea eta bultzatzea.
- Gizarte-ahultasunezko egoera jakin batzuetan dauden pertsonen gizarte- inklusioa erraztea.
- Aukera berdintasunaren printzipioa defendatzea.

## III. KAPITULUA

### PERTSONA EDO ERAKUNDE ONURADUNAK ETA DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

**9.- artikulua.** Udalak, deialdi publikoen bidez edo lankidetzahitzarmenak sinatuz, diru-laguntzak emango dizkie pertsonari, elkartei edo erakunde pribatuei, erabilera publikoko edo interes sozialeko jarduerak egiteko nahiz toki eskumenari dagozkion xede publikoen lorpena sustatzeko.

**10.- artikulua.** Urretxuko Udaleko Plan Estrategiko hau zuzenean aplikatuko zaie udalak urtero honako prozedura hauen bidez ematen dituen diru-laguntzei:

- Norgehiagoka-erregimenean emandako diru-laguntzei.
- Aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza izendunei.

Oro har, diru-laguntzak norgehiagoka-erregimenean emango dira; hala ere, diru-laguntzak zuzenean eman ahal izango dira udaleko aurrekontuetan izendun gisajasotako diru-laguntzen kasuan, bai eta, interes publikoko, sozialeko, ekonomikoko edo humanitarioko arrazoiengatik, aurreikusi gabe eta hitzarmen berrien bidez ematen diren diru-laguntzen kasuan ere; diru-laguntza horiek izenpetu ondoren, plan honetan jasoko dira.

**11.- artikulua.** Plan honen aplikazio-eremutik at geldituko dira honako hauek:

- a) Onuradunak aurrez eskatu gabe emandako sariak edo bekak.
- b) Toki-korporazioko talde politikoei zuzendutako diru-laguntzak.
- c) Udalak komunitateei, erakundeei, elkarteei eta partaidetzako sozietate publikoei kuota arruntak nahiz apartekoak ordaintzeko egiten dizkien diru-ekarpenak, haien oreka ekonomiko eta finantzarioari eusteko.

#### IV. KAPITULUA

##### GAUZATZEKO EPEA, AURREIKUS DAITEZKEEN KOSTUAK ETA DIRU-LAGUNTZEN FINANTZAKETA

**12. artikulua.** Oro har, udalaren diru-laguntzek urtebeteko epea izango dute gauzatzeke (diruz lagundutako jarduketak garatzeko), eta urte naturala izango da horiek justifikatzeko aldia.

Gauzatzeke epea urtebetetik gorakoa izatea komeni den egoeretan edo diru-laguntzak justifikatzeko aldia aldatzea komeni denean, diru-laguntzen oinarrietan informazio hori jaso beharko da; halako kasuetan, indarrean dagoen legeak ezarritako baldintzak bete beharko dituzte urtero.

**13. artikulua.** Plan Estrategiko honek aipatzen dituen diru-laguntzak erreferentziazko ekitaldi bakoitzeko udal-aurrekontuen kargura finantzatzen dira, eta urteko aurrekontuan eta horren izendapenetan diru-laguntzak onartzeari baldintzatuta geratuko da.

Kasu bakoitzean, udalaren aurrekontu orokorrean urtero zehaztutako kopuruaren arabera mugatuko dira kostuak, eta ezingo dira zehaztutakoak baino diru-laguntza handiagoak eman.

Diru-laguntzen programak aurrera eraman ahal izateko, beharrezkoa izango da aurrekontuan diru-hornidura nahikoa eta egokia izatea. Diru-laguntzak eman baino lehen, dagokion gastubaimena izapidetu beharko da, Urretxuko Udaleko aurrekontu-arauetan aurreikusitako baldintzetan.

## V. KAPITULUA

### PLANAREN EDUKIA

**14. artikulua.** Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzek eta bestelako laguntzek honako hauek biltzen dituzte, diru-laguntzaren ildo bakoitzean:

- Helburu estrategikoa
- Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.
- Helburuak lortzeko epea.
- Laguntzak zer sektoretara zuzentzen diren.
- Gauzatzeko aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak.
- Diru-laguntzak emateko prozedura.
- Ekintza-plana.
- Jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egiteko erregimena eta adierazleak.

**15. artikulua.** Honako hauek dira Plan Estrategiko honetan jasotako jarduketa-ildo estrategikoak, udalak emandako diru- laguntzen ildoak biltzen dituztenak:

- I. eranskina.- Familia eta gizarte- ongizatea.
- II. eranskina.- Lankidetzeta, elkartasuna eta giza garapena.
- III. eranskina.- Asoziazionismoa sustatzea eta kultura eta kirola bultzatzea eta hedatzea.
- IV. eranskina.- Euskara sustatzea.
- V. eranskina.- Haurrak eta gazteak babestea.
- VI. eranskina.- Tokiko merkataritza sustatzea.
- VII. eranskina.- Ingurumena eta landa- garapena.
- VIII eranskina.- Ekintzailatza sustatzeko eta enpresa- lehiakortasuna hobetzeko diru-laguntzak.

## VI. KAPITULUA

### DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN KONTROLA ETA EBALUAZIOA

**16. artikulua.** Diru-laguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertu ahal izateko, diru-laguntzak ematerakoan instrukzio-organo gisa ari diren zerbitzuek honako alderdi hauei buruzko txosten arrazoitua eskatuko diete onuradunei, hala dagokien kasuetan: garatutako ekintza-kopurua, diru-laguntza zenbat herritarrengana iritsiko den, eta lortutako helburuen justifikazioa.

## VII. KAPITULUA

### PLAN ESTRATEGIKOAREN KONTROLA, EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

**17. artikulua.** Urretxuko Udalaren Diru Laguntzen Plan Estrategikoaren kontrola eta jarraipena urtero egingo da, honako bi alderdi hauetan:

- a) Emandako diru-laguntzen kontrol ekonomiko-finantzarioa: udaleko kontu-hartzaitzari aginduko zaio, eta indarreko legedian zehaztutako baldintzen arabera egingo da. Diru-laguntzen zenbatekoen ordainketa- data errealak aztertuko ditu, bai eta ordainketarako erabilitako bideak eta diru-laguntza lortzeko pertsona edo erakunde onuradun bakoitzari eskatu zaizkion betekizunen justifikazio zuzena ere.
- b) Planaren kontrol, ebaluazio eta jarraipen teknikoak: urtero, Plan Estrategikoa ebaluatu eta eguneratuko da, eskuragarri dagoen informazio garrantzitsuarekin bat etorrira.

Hurrengo ekitaldiko lehen lauhilekoaren barnean, tokiko gobernu-batzarrari eta Antolakuntza Batzordeari ebaluazio-memoria bat bidaliko die diru-laguntzak emateko prozeduran instrukzio-organo diren zerbitzuetako bakoitzak, eta, memoria horretan, plana zer mailataraino bete den jasoko da; horrez gain, helburuen lorpenean eta erdietsi nahi diren eraginetan zenbateraino egin den aurrera adieraziko da, planean aurreikusitako jarduketako ildoetako diru-laguntza mota jakin bakoitzean xede horretarako zehaztu diren adierazlearen arabera. Horrez gain, hurrengo Diru Laguntzen Plan Estrategikorako iradokizunak jasoko dituen proposamen bat ere txertatuko da memoria horretan.

Zehazki, honako alderdi hauek zehatz- mehatz azalduko dira ebaluazio- memorian:

- Diru-laguntzaren xedea.
- Pertsona edo erakunde onuraduna eta, hala dagokionean, kolaboratzailea.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa.
- Diru-laguntzaren zenbateko horren barnean garatutako ekintza zehatzak.
- Diruz lagundutako ekintza zenbat pertsonarengana iritsi den.
- Adierazlearen lorpena.
- Instrukzio-organoaren balioespina, lortu nahi diren helburuak diru-laguntza eman den unearekin bat datozen eta oinarriko programari eusteko edo bertan behera uzteko egokitasuna aztertzeko.

**18. artikulua.** Diru-laguntzak eman dituzten zerbitzuek eta udaleko kontu-hartzaitzari emandako jarraipen-txostenen emaitzen arabera diru-laguntzen ildo batzuk ez badira iritsi lortu nahi zen helburuen lorpen-mailara edo inbertitutako baliabideen arabera egokitzen jotzen den mailara, horiek aldatu edo eraginkorragoak diren beste batzuek ordezka daitezke, edota, hala badagokio, ken daitezke.

## I.ERANSKINA

### FAMILIEN ETA GIZARTE-ONGIZATEAREN ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK

1. Helburu estrategikoa: udalerriko gizabanakoekin eta familiekin lankidetzan aritzea, behar handiko egoerak arintzeko eta gizarteratzen laguntzeko, gizarte- bazterketari aurrea hartzeko eta horrelakoak saihesteko, gizarte-izaerako xedeak dituzten eta urretxuarren mesedetan lan egiten duten elkarteei beren proiektu eta jarduerak egiten laguntzeko.
2. Helburu espezifikoak, eta horien bidez zertan eragin nahi den:
  - Krisi ekonomikoaren eraginak arintzea. Droga-mendekotasunei, adikzio psikologikoei eta nerabeentzat arriskutsuak diren egoerei aurre egiteko tratamenduetan laguntzea.
  - Mendeko pertsoneri edo gizarte- bazterketa jasateko arriskua duten pertsoneri zuzendutako laguntza sustatzea.
  - Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta horrelako kasuetarako laguntza-zerbitzuak sustatzea.
  - Kulturartekotasuna sustatzea.
  - Gizarteratzen laguntzea, gizarte- bazterketa saihesteko.
3. Diruz lagundu daitekeen ildoaren denbora-eremua: 2020-2022 aldia.
4. Laguntzak honako sektore hauei zuzentzen zaizkie: gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsoneri eta kolektiboari, eta beren jarduerak gizarte- zerbitzuen esparruan garatzen dituzten elkarteei.
5. Aurreikusten diren kostuak: aurreikusitako kostuak urtero onartzen den aurrekontuan xede horretarako erabil daitekeen aurrekontu maximora iritsi artekoak izango dira.
6. Finantzaketa-iturria: finantzaketa udal- aurrekontuko funts propioekin egingo da, gizarte-larrialdiko laguntzen kasuan izan ezik; azken kasu horretan, Eusko Jaurlaritzatik jasotzen da diru-laguntza, eta ematen diren laguntzen % 100 estaltzera iritsi daiteke diru-laguntza hori.

Diru-laguntza emateko prozedura: oro har, lehiaketa bidez egingo da, eta zuzenean emango zaie interes publikoko, sozialeko, ekonomikoko edo humanitarioko arrazoiengatik aurrekontuan izenez ageri diren erakundeei. Lehiaketa bidez ematen diren diru-laguntzen deialdien oinarrietan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera zuzendutako ekintzen balioespena jasoko da, halakorik bada.

8. Jarduketa-plana: deialdirako oinarri arautzaileak egingo dira, eta honako hauek guztiak bilduko dira oinarri horietan: helburuak, parte hartzeko baldintzak, baztertzeko irizpideak, meritua balioesteko irizpideak, puntuazio-sistema, diruz lagundu daitekeen gehieneko

zenbatekoa, diruz lagundu daitezkeen ekintzen justifikazioa. Gizarte-zerbitzuen esparruan lan egiten duten elkarteei zuzendutako diru- laguntzen programan, urteroko deialdiaren oinarri arautzaileek balioespen-irizpide gisa jasoko dute erakundeen barnean emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko politikak edo jarduketak gauzatu dituzten erakundeen ibilbidea (3 punturaino): erakundearen barnean, emakumeek eta gizonezkoek duten egoerari buruzko diagnostikoak eginda izatea; berdintasun- planak izatea; berdintasunaren alorrean esku-hartze espezifikoetarako ildoak garatzea, besteak beste: erakundearen zuzendaritza-organoetan ordezkaritza paritarioa bermatzen duten arauak; egiten dituzten materialetan, hizkuntza ez- sexista erabiltzeko arauak, etab. Lehentasunezko egutegia: diru-laguntzen deialdia eta onarpena, urteko lehenengo seihilekoan.

7. Jarraipenerako eta ebaluazio jarraiturako erregimena: ekintzen eta lortutako helburuen memoria teknikoak, eta memoria ekonomikoak. Adierazleak: generoaren, eskaera-kopuruaren, onuradunak diren pertsona-kopuruaren, ukatze-kopuruaren eta laguntzen batez besteko zenbatekoaren arabera bereizita.



ZK	XEDEA	HARTZAILEAK	EMAKIDA MODALITATEA	HELBURUAK ETA ONDORIOAK	EXEKUZIO EPEA	AURREIKUSITAKO AURREKONTUA	EZARPENA AURREKONTUAN	ADIERAZLEAK
1	Udal tasak ordaintzeko laguntza	Urretxun erroldatutako pertsona eta familia unitateak, laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituztenak.	Lehia librea	Udal tasa eta prezio publikoen ordainketan baliabide urriko pertsonen eta familia unitateen laguntza ematea.	Urterokoa	2020ko ekitaldia: 600 € 2021ko ekitaldia: 600 € 2022ko ekitaldia: 600 €	4000.480.231.00.01	*Aurkeztutako eskaera kopurua. *Emandako Diru laguntzen kopurua. *Dagokion aurrekontuko partidaren exekuzioaren portzentazia. *Aurkeztutako eta Emandako diru-Laguntzen arteko portzentaia. *Onuradunen kopurua sexuz banatuta. *Helburua.

2	Norbanakoen laguntzak	Urretxun erroldatutako pertsona eta familiak: Gizarte-bazterketa arriskuan; tratamendu programaren bat egiten dutenak; espetxean sendikoak dituztenak; Urretxun erroldatutako adin txikikoak.	Lehia librea	Lehen mailako premia egoerak arintzea; drogomendeko- tasun, adikzio psikologiko eta nerabeen arrisku egoeren tratamenduetan laguntzea. Gizarte bazterketa ekiditen eta gizarteratzen laguntzea. Gizarte Larrialdietako Laguntzak osatzea.	Urterokoa	2020ko ekitaldia: 20.000 € 2021ko ekitaldia: 20.000 € 2022ko ekitaldia: 20.000 €	4000.480.231.00.02	**Aurkeztutako eskaera kopurua. *Emandako Diru laguntzen kopurua. *Dagokion aurrekontuko partidaren exekuzioaren portzentazia. *Aurkeztutako eta Emandako diru- Laguntzen arteko portzentaia. *Onuradunen kopurua sexuz banatuta. *Helburua.
3	Gizarte Larrialdietako Laguntzak	Urretxun erroldatutako pertsona eta familia unitateak, laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituztenak.	Lehia librea	Gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen edo/eta sendikoen gizarteratzea hobetzea eta lehen mailako beharretara iristeko erraztasuna ematea, dauden laguntzak lortzeko oztoporen bat daukaten kasuetan.	Urterokoa	2020ko ekitaldia: 75.000 € 2021ko ekitaldia: 75.000 € 2022ko ekitaldia: 75.000 €	4000.480.231.30.01	**Aurkeztutako eskaera kopurua. *Emandako Diru laguntzen kopurua. *Dagokion aurrekontuko partidaren exekuzioaren portzentazia. *Aurkeztutako eta Emandako diru- Laguntzen arteko portzentaia. *Onuradunen kopurua sexuz banatuta. *Helburua.ayuda
4	Jarduera gizarte zerbitzuen arloan egiten duten elkarteak	Urretxun edo Urola Garaia Mankomunitatea osatzen duten udalerrietakoren batean egoitza duten	Lehia librea	Mendekotasuna, ezgaitasuna duten edo gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen arreta, gizarteratzea, laguntza sustatzea.	Urterokoa	2020ko ekitaldia: 15.500 € 2021ko ekitaldia: 15.500 € 2022ko ekitaldia: 15.500 €	4000.481.231.00.01	**Aurkeztutako eskaera kopurua. *Emandako diru- laguntzen kopurua *Dagokion aurrekontuko

		<p>erakundeak edo/eta pertsonak, eta euren jarduerak gizarte zerbitzuen arloan egiten dituztenak.</p> <p>Salbuespen gisa, laguntza jaso ahal izango dute helbide soziala Urola Garaiko inongo udalerritan ez duten baina udalerrirako interesgarritzat jotzen diren erakunde eta/edo pertsonak.</p>		<p>Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra sustatzea.</p> <p>Gizarte arloan boluntariotza sustatzea.</p> <p>Kultura aniztasuna sustatzea.</p> <p>Gizonezkoen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea.</p>				<p>partidaren exekuzioaren portzentazia.</p> <p>*Egindako jardueren kopurua.</p> <p>*Diruz lagundutako jardueren zuzeneko onuradun urretxuarren kopurua.</p> <p>*Onuradunen kopurua sexuz banatuta.</p> <p>*Bazkide urretxuarren kopurua.</p>
5	Jubilatuak elkartek	<p>Urretxuko AterpeJubilatuak Elkartea</p>	<p>Zuzena. Hitzarmena</p>	<p>Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak antolatu eta garatzea, bai eta jai-, kultura- eta gastronomia-ekitaldien agenda bat ere, elkartekide diren edo ez diren 65 urtetik gorako pertsonentzat.</p> <p>65 urtetik gorako pertsonen ongizatea sustatzea</p>	Urterokoa	<p>2020 ekitaldia:5.000 €</p> <p>2021 ekitaldia: 5.000 €</p> <p>2022 ekitaldia:5.000 €</p>		<p>*Diruz lagundutako jardueren zuzeneko onuradun urretxuarren kopurua.</p> <p>*Lagundutako proiektuen kopurua.</p> <p>*Proiektu bakoitzean parte hartzen duten bolondresen kopurua.</p>

## **II. ERANSKINA**

### **LANKIDETZAREN, ELKARTASUNAREN ETA GIZA GARAPENAREN ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK**

1. Helburu estrategikoa: gizarte-egoera ahulenerako herriengarapenean laguntzea, eta haien bizi-kalitatea hobetzeko lan egitea.
2. Helburu espezifikoak, eta horien bidez zertan eragin nahi den:
  - a. Laguntzea, herriek giza garapen burujabe eta iraunkorra, baliabide endogenoak mugiaraziko dituen, lor dezaten.
  - b. Larrialdiko egoerei erantzutea, laguntza humanitarioko ekintzen bidez.
3. Laguntzak honako sektore hauei zuzentzen zaizkie: garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei, lankidetzako proiektuak kudeatzen dituzten erakundeei, Euskal Fondoari.
4. Diruz lagundu daitezkeen ildoaren denbora-eremua: 2020-2022 aldia.
5. Gauzatzeko aurreikusten diren kostuak: aurreikusitako kostuak urtero onartzen den aurrekontuan xede horretarako erabil daitezkeen aurrekontu maximora iritsi artekoak izango dira.
6. Finantzaketa-iturria: udal-aurrekontua.
7. Diru-laguntza emateko prozedura: oro har, norgehiagoka-erregimenean emango da, eta zuzenean emango zaie interes publikoko, sozialeko, ekonomikoko edo humanitarioko arazoengatik aurrekontuan izenez ageri diren erakundeei. Norgehiagoka-erregimenean ematen diren diru-laguntzen deialdien oinarrietan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera zuzendutako ekintzen balioespina jasoko da, halakorik bada.
8. Jarduketa-plana: urteroko deialdiari dagozkion oinarriak zehaztuko dira, eta diru-laguntza izendunen esleipena arautzeko sina daitezkeen lankidetzak hitzarmenak egingo dira. Nazioarteko lankidetzak-programei zuzendutako diru-laguntzen programan, urteroko deialdiaren oinarri arautzaileek balioespen-irizpide gisa jasoko dute erakundeen barnean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko politikak edo jarduketak gauzatu dituzten erakundeen ibilbidea (5 punturaino): erakundearen barnean, emakumeek eta gizonezkoek duten egoerari buruzko diagnostikoak eginda izatea; berdintasun-planak izatea; berdintasunaren alorrean esku-hartze espezifikoetarako ildoak garatzea, besteak beste: erakundearen zuzendaritza-organoetan ordezkaritza paritarioa bermatzen duten arauak; egiten dituzten materialetan, hizkuntza ez-sexista erabiltzeko arauak, etab. Lehenetsutako egutegia: diru-laguntzen deialdia eta onarpena, urteko lehenengo seihilekoan.
9. Jarraipenerako eta ebaluazio jarraiturako erregimena: ekintzen eta lortutako helburuen memoria teknikoa, eta memoria ekonomikoa. Adierazleak: generoaren, eskaera-kopuruaren, onuradunak diren pertsona-kopuruaren, ukatze-kopuruaren eta laguntzen batez besteko zenbaterakoaren arabera bereizita.

ZK	XEDEA	HARTZAILEAK	EMAKIDA MODALITATEA	HELBURUAK ETA ONDORIOAK	EXEKUZIO EPEA	AURREIKUSITAK O AURREKONT UA	EZARPENA AURREKONTUAN	ADIERAZLEAK
1	Nazioarteko lankidetzaren programa	Egoitza iraunkorra Euskal Herrian duten GKEak (zentrala edo delegaritzea); Urretxun erroldatutako pertsonak, adinez nagusiak eta GKE batean irabazi asmorik gabeko kooperazio lanak egin behar dituztenak.	Lehia librea	Garapenerako lankidetzaren programak sustatzea, garapen bidean dauden herrietako biztanleriaren baldintza sozioekonomikoak hobetzera zuzendua. Nazioarteko elkartasunaren eta Urretxuko herritarren artean berdintasunaren balorea sustatzea.	Urterokoa	2020ko ekitaldia: 56.550 € 2021ko ekitaldia: 56.550 € 2022ko ekitaldia: 56.550 €	4000.481.230.20.01	*Aurkeztutako eskaera kopurua. *Emandako diru-laguntzen kopurua. *Dagokion aurrekontuko partidaren exekuzioaren portzentzia. *Aurkeztutako eta emandako diru-laguntzen arteko portzentaia. *Kooperanteen kopurua sexuz banatuta.
2	2	Euskal Fondoa Hitzarmena	Euskal Fondoa	Emakida zuzena. Hitzarmena	Justizian oinarriturik, bakezko bizikidetzaren baloreen garapena sustatzen duten lankidetzaren arloan hainbat proiektuak laguntzea.	Urterokoa	2020ko ekitaldia: 6.200 € 2018ko ekitaldia: 6.200 € 2019ko ekitaldia: 6.200 €	4000.421.230.20.01

### III. ERANSKINA

#### ELKARTEGINTZA INDARTZEKO ETA KULTURA ETA KIROLA SUSTATZEKO ETA ZABALTZEKO DIRU- LAGUNTZAK

1. Helburu estrategikoa: Urretxun dauden elkarten edota Urretxuko herritarren onurarako lanean ari diren elkarten proiektuak eta jarduerak bultzatzea, gizartea, kultura, kirola, gazteria, hezkuntza eta Urretxuko balio historikoak helburutzat dituzten proiektu eta jarduerak direnean, zehazki.
2. Helburu espezifikoak, eta horien bidez zertan eragin nahi den:
  - Kulturaren eta festen arloko jarduerak sustatzea udalerrian.
  - Kulturaren eta festen arloko jardueren antolaketan, boluntarioria eta herritarren parte-hartzea sustatzea.
  - Sormenezko adierazpena sustatzera eta kultura ekoiztera eta zabaltzera bideratutako programak eta jarduerak babestea eta sustatzea.
  - Elkartegintza sustatzea, eta kirol-elkarten egiturak garatzea eta sendotzea, kirola egitearekin lotutako antolamendua eta emaitzak optimizatzeko.
  - Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea.
3. Diruz lagundu daitekeen ildoaren denbora-eremua: 2020-2022 aldia.
4. Laguntzak honako sektore hauei zuzentzen zaizkie: besteak beste, kultura-elkarteei, eta baita euren jarduketa-esparrutzat Urretxu duten irabazi asmorik gabeko kirol-elkarteei ere.
5. Gauzatzeko aurreikusten diren kostuak: aurreikusitako kostuak onartzen den aurrekontuan xede horretarako erabil daitekeen aurrekontu maximora iritsi artekoak izango dira.
6. Finantzaketa-iturria: udal-aurrekontua.
7. Diru-laguntza emateko prozedura: oro har, norgehiagoka-erregimenean emango da, eta zuzenean emango zaie interes publikoko, sozialeko, ekonomikoko edo humanitarioko arrazoiengatik aurrekontuan izenez ageri diren erakundeei. Norgehiagoka-erregimenean ematen diren diru-laguntzen deialdien oinarrietan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera zuzendutako ekintzen balioespena jasoko da, halakorik bada.
8. Jarduketa-plana: deialdiari dagozkion oinarriak zehaztuko dira, eta diru- laguntza izendunen esleipena arautzeko sina daitezkeen lankidetzak hitzarmenak egingo dira. Film laburrak, bideoklipak edota audio-grabazioak egiteko diru-laguntzen programan, deialdia arautzen duten oinarriek genero-berdintasunaren aldeko jarreraren sustapena hartuko dute balioespen-irizpide gisa; ildo honetako diru-laguntza jaso dezaketen gainerako programetan ere, deialdia arautzen duten oinarriek genero- berdintasunaren aldeko sexuaren eta generoaren arabera estereotipatuta dauden ereduak zalantzan jartzen dituztenak eta zuzendaritza-batzordearen % 40 gutxienez emakumeak dituztenak.

9. Jarraipenerako eta ebaluazio jarraiturako erregimena: ekintzen eta lortutako helburuen memoria teknikoa, eta memoria ekonomikoa. Adierazleak: generoaren, onuradunak diren elkarre-kopuruaren, egindako jarduera-kopuruaren eta herritarren parte-hartze mailaren arabera bereizita. Jarreraren sustapena hartuko dute balioespenez irizpide gisa, hau da, emakumeen parte-hartzea eta lidergoa sustatzen dutenak eta indarkeria matxistaren prebentzioan lan egiten dutenak,

ZK	XEDEA	HARTZAILEAK	EMAKIDA MODALITATEA	HELBU RUAK ETA ONDO RIOAK	EXEKUZIO EPEA	AURREIKUSITAK O AURREKONT UA	EZARPENA AURREKONTUAN	ADIERAZLEAK
1	Kultura elkarteak	Urretxun diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteak. Kultura edo/eta aisialdiko jarduera jakin bat egiteko maiz edo noizbehinka elkartzen diren pertsonak eta taldeak.	Lehia librea	Kultura eta jaietako jardueraren sustapena.	Urterokoa	2020 ekitaldia: 77.000 € 2021 ekitaldia: 77.000 € 2022 ekitaldia: 77.000 €	6000.481.334.00.01	Diru-laguntza eskatu duten erakunde kopurua. Egindako jarduera kopurua eta zuzentzen zaion publiko mota. Taldeko kide kopurua.
2	Jaietarako diru-laguntzak	Jarduera eremua Urretxun duten eta jaietan jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteak.	Lehia librea	Jaietako jardueraren sustapena.	Urterokoa	2020 ekitaldia:40.000 € 2021 ekitaldia: 40.000 € 2022 ekitaldia: 40.000 €	6000.481.338.00.01	Diru-laguntza eskatu duten erakunde kopurua. Egindako jarduera kopurua eta zuzentzen zaion publiko mota. Taldeko kide kopurua.
3	Laburmetraiak, bideoklipak, edo/eta audio grabaketak egitea	Urretxun bizi diren pertsonak eta taldeak, laburmetraia edo/eta bideoklipa egiteko maiz edo noizbehinka elkartzen direnak, %50 edo gehiago Urretxuko biztanlez osatuta.	Lehia librea	Sormen adierazpena bultzatzea, eta genero berdintasunaren sustapenaren aldeko jarrera indartzea.	Urterokoa	2020 ekitaldia: 1.800 € 2021 ekitaldia: 2.000 € 2022 ekitaldia: 2.000 €	6000.481.330.00.01	Egindako proiektu kopurua eta bere zabalkundea. Urretxuko biztanle izanik, talde eskatzailea osatzen duten pertsona kopurua.



4	Kirol jarduera arruntak	Egoitza soziala Urretxun izanik, edo Zumarragan, baldin eta euren espezialitatea bi udalerrien eremuan garatzen badute, eta irabazi asmorik gabeko kirol elkarteak, erakundeak eta klubak. Euren espezialitatea Urola Garaia Mankomunitateko eremuan garatzen duten eskualdeko izaerako kirol erakundeak, elkarteak eta klubak.	Lehia librea	Egiturak garatu eta sendotzea. Urretxuko Udaleko Sustapen Soziokulturaleko Arloaren helburuekin bat datozen jarduerak egitea, beti ere kirol arloan Gizonezkoen eta emakumeen arteko berdintasuna betikotu gabe.	Urterokoa	2020 ekitaldia: 90.000 € 2021 ekitaldia:90.000 € 2022 ekitaldia:90.000 €	6000.481.341.00.01	Klub edo erakunde eskatzaile kopurua. Kirolari parte-hartzaile kopurua.
5	Aparteko kirol jarduerak	Urretxuko eta Urola Garaiko kirol klubak eta elkarteak. Irabazi asmorik gabeko kirol federazioak eta beste elkarte batzuk, kirol sustapena helburu duten pertsonak eta taldeak.	Lehia librea	Izaera bereziko kirol jarduerak sustatzea: kirol ekitaldiak, klubak, urteurrenak....	Urterokoa		6000.481.341.00.01	Izaera bereziko kopurua. Ekitaldi bakoitzeko hartzaile kopurua. Jarduera mota

#### **IV. ERANSKINA**

#### **EUSKARA SUSTATZEKO DIRU- LAGUNTZAK**

1. Helburu estrategikoa: Urretxun, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea eta normalizatzea.
2. Helburu espezifikoak, eta horien bidez zertan eragin nahi den:
  - Euskararen ikaskuntza sustatzea, eta horretarako erraztasunak eskaintzea.
3. Diruz lagundu daitekeen ildoaren denbora-eremua: 2020-2022 aldia.
4. Laguntzak honako sektore hauei zuzentzen zaizkie: Urretxuko herritarrei oro har, Urretxun kokatuta dauden pertsona juridikoei, negozioei eta ostalaritzako establezimenduei, eta herriko nahiz eskualdeko komunikabideei.
5. Gauzatzeko aurreikusten diren kostuak: aurreikusitako kostuak onartzen den aurrekontuan xede horretarako erabil daitekeen aurrekontu maximora iritsi artekoak izango dira.
6. Finantzaketa-iturria: udal-aurrekontua.
7. Diru-laguntza emateko prozedura: oro har, norgehiagoka-erregimenean emango da, eta zuzenean emango zaie interes publikoko, sozialeko, ekonomikoko edo humanitarioko arrazoiengatik aurrekontuan izenez ageri diren erakundeei. Norgehiagoka-erregimenean ematen diren diru-laguntzen deialdien oinarrietan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera zuzendutako ekintzen balioespena jasoko da, halakorik bada.
8. Jarduketa-plana: deialdiari dagozkion oinarriak zehaztuko dira, eta diru-laguntza izendunen esleipena arautzeko sina daitezkeen lankidetzeta-hitzarmenak egingo dira. Antzerkiaren, musikaren eta kulturaren arloko euskarazko ikuskizunei zuzendutako diru-laguntzen programan, deialdia arautzen duten oinarriek genero- berdintasunaren aldeko jarreraren sustapena hartuko dute balioespen- irizpide gisa.
9. Jarraipenerako eta ebaluazio jarraiturako erregimena: ekintzen eta lortutako helburuen memoria teknikoa, eta memoria ekonomikoa. Adierazleak: generoaren, onuradunak diren pertsona- kopuruaren eta egindako jarduera- kopuruaren arabera bereizita.

XEDEA	HARTZAILEAK	EMAKIDA MODALITATEA	HELBURUAK ETA ONDORIOAK	EXEKUZIO EPEA	AURREIKUSITA AURREKONTUA	EZARPENA AURREKONTUAN
Euskara ikastea	Urretxun erroldatutako pertsona fisikoak, barnetegietan edo herritik kanpoko euskaltegietan euskara ikasten dutenak, eta euskararen normalizazioarekin zerikusia duten UEUko ikastaroetan parte hartzen dutenak.	Lehia librea	Euskara ikastea eta erabileraren normalizazioa sustatzea.	2020 ekitaldia: 1.500 € 2021 ekitaldia: 1.500 € 2022 ekitaldia: 1.500 €	6000.480.335.00.01	Eskatzaile kopurua
Kanpoko eta barruko errotulazioa, irudi korporatiboa eta euskarazko web orria	Beraien jarduera Urretxuko udalerrian kokaturiko lokaletan garatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.	Lehia librea	Euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzea.	2020 ekitaldia: 2.000 € 2021 ekitaldia: 2.000 € 2022 ekitaldia: 2.000 €	6000.471.335.00.01	Diruz lagundutako establezimendu kopurua
Goierriko Hedabideei ekarpena	Goierriko Hedabideak, S.L.	Emakida zuzena. Hitzarmena	Euskaraz idatzitako hedabideak sustatzea.	2020 ekitaldia: 19.829 € 2021 ekitaldia: 19.829 € 2022 ekitaldia: 19.829 €	6000.471.335.00.00	Irakurle kopurua Harpidedun kopurua
Gu ere bertsotan	Gipuzkoako Bertsozale Elkartea	Emakida zuzena Hitzarmena	Ikasleen artean ahozkotasuna eta bertsolaritza sustatzea	2020 ekitaldia: 3.700 € 2021 ekitaldia: 3.700 € 2022 ekitaldia: 3.700 €	5000.481.326.00.00	Ikasle parte-hartzaile kopurua
Nafarroa Oinez, Herri Urrats	Nafarroa Oinez, Herri Urrats	Emakida zuzena Transferentzia	Nafarroa, Iparralde eta Gipuzkoako ikastoletan euskara sustatzea	2020 ekitaldia: 360 € 2021 ekitaldia: 360 € 2022 ekitaldia: 360 €	6000.481.335.00.01	Ikasle hartzaile kopurua

## **V. ERANSKINA**

### **HAURRAK ETA GAZTEAK LAGUNTZEKO DIRU-LAGUNTZAK**

- 1 Helburu estrategikoa: Adingabekoen bizi-kalitatea hobetzea eta eskolako bizikidetzeta eta genero berdintasuna sustatzea. Halaber gazteen emantzipazioa sustatzea.
  
- 2 Helburu espezifikoak, eta horien bidez zertan eragin nahi den:
  - a. Belaunaldien arteko harremanak sustatzea.
  - b. Ikastetxeen arteko harremanak sustatzea.
  - c. Baterako hezkuntza sustatzea.
  - d. Emantzipazioa sustatzea.
  - e. Gazteen artean alokairua sustatzea.
  
- 3 Diruz lagundu daitekeen ildoaren denbora-eremua: 2020-2022 aldia.
  
- 4 Laguntzak honako sektore hauei zuzentzen zaizkie: Urretxuko ikasleria eta gazteria orokorrean, eta baita Urretxun edo Zumarragan irakaskuntza arautuan diharduten Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak ere
  
- 5 Gauzatzeko aurreikusten diren kostuak: aurreikusitako kostuak onartzen den aurrekontuan xede horretarako erabil daitekeen aurrekontu maximora iritsi artekoak izango dira.
  
- 6 Finantzaketa-iturria: udal-aurrekontua.
  
- 7 Diru-laguntza emateko prozedura: oro har, norgehiagoka-erregimenean emango da, eta zuzenean emango zaie interes publikoko, sozialeko, ekonomikoko edo humanitarioko arrazoiengatik aurrekontuan izenez ageri diren erakundeei. Norgehiagoka-erregimenean ematen diren diru-laguntzen deialdien oinarrietan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera zuzendutako ekintzen balioespena jasoko da, halakorik bada.
  
- 8 Jarduketa-plana: deialdiari dagozkion oinarriak zehaztuko dira, eta diru-laguntza izendunen esleipena arautzeko sina daitezkeen lankidetzeta-hitzarmenak egingo dira. Norgehiagoka-erregimenean ematen diren diru-laguntzen deialdia arautzen duten oinarriek genero ikuspegia sartu izana, edo emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren sustapena hartuko dute balioespen- irizpide gisa, benetako berdintasuna gauzatzeko.
  
- 9 Jarraipenerako eta ebaluazio jarraiturako erregimena: ekintzen eta lortutako helburuen memoria teknikoa, eta memoria ekonomikoa. Adierazleak: generoaren, ikasle parte-hartzaile kopuruaren eta ikastetxe parte-hartzaile kopuruaren arabera bereizita. Etxebizitzen alokairurako laguntzen eskaera kopurua.

ZK	XEDEA	HARTZAILEAK	EMAKIDA MODALITATEA	HELBURUAK ETA ONDORIOAK	EXEKUZIO EPEA	AURREIKUSITAKO AURREKONTUA	EZARPENA AURREKONTUAN	ADIERAZLEAK
1	Eskolaz kanpoko jarduerak	Urretxun edo Zumarragan irakaskuntza arautuan diharduten Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak	Lehia librea	Honako hauek sustatzea: euskararen erabilera; belaunaldien arteko harremanak, ikastetxe desberdinen arteko ekintza bateratuak, genero indarkeriari aurrea hartzeko zuzenduta daudenak, baloreetan hezteko ekintzak, aisialdian hezteko ekintzak, hezkidetza, prebentzio komunitarioa, garapen iraunkorra, herritarren parte hartzea eta irakaskuntzaren kalitatea.	Urterokoa	2020 ekitaldia: 27.705 € 2021 ekitaldia: 27.705 € 2022 ekitaldia: 27.705 €	5000.481.326.00.0 1	Ikastetxe part e- hartzaille kopurua Ikastetxe bakoitzeko ikasle kopurua, aurreko urtekoarekin konparatuta.
2	Joxe Mari Iparragirre Institutuarekin garraiorako hitzarmena	Joxe Mari Iparragirre Institutua	Emakida zuzena Hitzarmena	DBHko ikasleen garraioa finantzatzeko laguntza	Urterokoa	2020 ekitaldia: 5.000 € 2021 ekitaldia: 5.000 € 2022 ekitaldia: 5.000 €	5000.481.326.00.0 2	Ikasle erabilizaile kopurua
3	Eskola Kirola	La Salle Ikastetxea	Emakida zuzena Hitzarmena	Egiturak garatzea eta sendotzea, eta eskola kirolaren kudeaketa eta arreta	Urterokoa	2020 ekitaldia: 16.600€ 2021 ekitaldia: 16.600€ 2022 ekitaldia: 16.600€	6000.481.326.00.0 1	Ikasle part e- hartzaille kopurua
4	Eskola kirola	Gainzuri ikastetxe publikoa	Emakida zuzena Hitzarmena	Egiturak garatzea eta sendotzea, eta eskola kirolaren kudeaketa eta arreta	Urterokoa	2020 ekitaldia: 16.600€ 2021 ekitaldia: 16.600€ 2022 ekitaldia: 16.600€	6000.481.326.00.0 1	Ikasle parte- hartzaille kopurua
5	Eskola kirola	Urretxu Zumarraga Ikastola	Emakida zuzena Hitzarmena	Egiturak garatzea eta sendotzea, eta eskola kirolaren kudeaketa eta arreta	Urterokoa		6000.481.326.00.0 1	Ikasle parte- hartzaille kopurua
6	La Salle-Legazpi ikastetxea: instalazioen lagapena	La Salle-Legazpi ikastetxea	Emakida zuzena Hitzarmena	Ikastetxearen instalazioak erabilera lagapena	Urterokoa	2020 ekitaldia: 10.000€ 2021 ekitaldia: 10.000€ 2022 ekitaldia: 10.000€	5000.481.323.00.0 1	Ikasle kopurua

7	Alokairua ordaintzeko gazteentzako laguntzak	Urretxuko alokairuan bizi diren 18-35 urte bitarteko gazteak.	Lehia librea	Gazteei emantzipatzeko erraztasunak ematea, eta gazteen artean etxebizitzan alokairua sustatzea.	Urterokoa	2020 ekitaldia:10.000 € 2021 ekitaldia: 10.000 € 2022 ekitaldia: 10.000€	4000.480.150.00.0 1	Eskaera kopurua
---	--	---	--------------	--	-----------	--	------------------------	-----------------

## **VI. ERANSKINA**

### **TOKIKO MERKATARITZA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK**

1. Helburu estrategikoa: Udalerrian merkataritza pizten laguntzea, Urretxuko merkatarien lehiakortasuna erraztuz, eta hirugarren mailako sektorean enpleguari eutsiz.
2. Helburu espezifikoak, eta horien bidez zertan eragin nahi den:
  - Herriko merkataritza sarearen lehiakortasunaren hobekuntza eta berrikuntza laguntzea.
  - Merkatal sektorearen sustapenean laguntzea, erosketarako giro egokia sortu eta jendea erakarriko duten ekitaldiak antolatuz.
  - Tokiko merkataritzan kontsumoa sustatzea.
  - Hirigune historikoan dauden lokal hutsak sustatzea.
3. Diruz lagundu daitekeen ildoaren denbora-eremua: 2020-2022 aldia.
4. Laguntzak honako sektore hauei zuzentzen zaizkie: herriko merkataritza elkarteak, herriko artisau elkarteak.
5. Gauzatzeko aurreikusten diren kostuak: aurreikusitako kostuak onartzen den aurrekontuan xede horretarako erabil daitekeen aurrekontu maximora iritsi artekoak izango dira.
6. Finantzaketa-iturria: udal-aurrekontua.
7. Diru-laguntza emateko prozedura: lehia librea eta aurrekontuan izenez ageri diren erakundeentzako emakida zuzena.
8. Jarduketa-plana: deialdiari dagozkion oinarriak zehaztuko dira, eta diru-laguntza izendunen esleipena arautzeko sina daitezkeen lankidetzak-hitzarmenak egingo dira.
9. Jarraipenerako eta ebaluazio jarraiturako erregimena: ekintzen eta lortutako helburuen memoria teknikoa, eta memoria ekonomikoa. Adierazleak: merkatariek egindako ekintza kopurua eta erakusle kopurua, ekintza horietako kontsumitzaileen parte-hartze adierazleak, Bitartean txartelaren erabilera. Indarrean jarritako lokal hutsen kopurua.

ZB	XEDEA	HARTZAILEAK	EMAKIDA MODALITATEA	HELBURUAK ETA ONDORIOAK	EXEKUZIO EPEA	AURREIKUSITAKO AURREKONTUA	EZARPENA AURREKONTUAN	ADIERAZLEAK
1	Urteko merkataritza planari laguntzea	Bitartean Merkatarien Elkartea	Emakida zuzena. Hitzarmena	Herriko merkataritza sustatzea. Herriko merkataritza errentagarri eta kalitatezko baten eskaintza eta lehiakortasuna handitzea.	Urterokoa	2020 ekitaldia: 10.600 € 2021 ekitaldia: 10.600 € 2022 ekitaldia: 10.600 €	3000.481.430.00.01	Stock feriako erakusle kopurua. Bitartean txartelaren erabilera. Merkataritzaren hilean betetako txartel kopurua.
2	Gabonetako argiteria	Bitartean Merkatarien Elkartea	Emakida zuzena. Hitzarmena	Merkataritza berpiztea sustatzea. Herriko denda txikiak laguntzea.	Urterokoa	2020 ekitaldia: 16.000 € 2021 ekitaldia: 16.000 € 2022 ekitaldia: 16.000 €	7000.481.165.00.01	Argiztaturiko eremuak eta xehetasunak.
3	Hirigune historikoko lokal hutsak	Bitartean Merkatarien Elkartea eta artisauen elkartea	Emakida zuzena. Hitzarmena	Hirigunehistorikoa berpiztea.	Urterokoa	2020 ekitaldia: 4.000 € 2021 ekitaldia: 4.000 € 2022 ekitaldia 4.000 €	1000.471.433.00.01	Erabiltzaileen kopurua.
4	Herrian kontsumoa sustatzea	Haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntzan seme-alabak dituzten Urretxuko familiak.	Lehia librea	Herriko merkataritzako kontsumoa sustatzea. Familiei laguntzea.	Urterokoa	2020 ekitaldia: 4.000 € 2021 ekitaldia: 4.000 € 2022 ekitaldia: 4.000 €	1000.471.433.00.01	Eskaera kopurua.
5	Covid-19-ari aurre egiteko merkataritza eta ostalaritza arloetan tokiko	Urretxuko xehekako merkataritza eta ostalaritzako autonomoak eta ETEak	Lehia librea	Covid-19-ari aurre egitea. Jarduera ekonomikoa eta lehiakortasuna mantentzea	Urtebete	2020 ekitaldia: 29.000 €	1.1000.480.430.00.01.2020	Lagundutako ekintzen kopurua.



## **VII. ERANSKINA**

### **INGURUMENAREN ETA LANDA GARAPENAREN ARLOKO DIRU- LAGUNTZAK**

1. Helburu estrategikoa: Ingurumena zaintzeari buruzko ezagutza, hezkuntza eta sentsibilizazioa bultzatzea, eta landa garapen iraunkorra laguntzea eta sustatzea.
2. Helburu espezifikoak, eta horien bidez zertan eragin nahi den:
  - Ingurumenaren zaintza eta biodibertsitatearen arloan aztertu eta ikertzeko proiektuak sustatzea.
  - Landa inguruari lotutako eskualdeko sektoreak laguntzea.
3. Diruz lagundu daitekeen ildoaren denbora-eremua: 2021-2022 aldia.
4. Laguntzak honako sektore hauei zuzentzen zaizkie: irabazi asmorik gabeko erakundeak eta beren jarduera ingurumenaren eta landa garapenaren arloan garatzen duten egitasmoak.
5. Gauzatzeko aurreikusten diren kostuak: aurreikusitako kostuak onartzen den aurrekontuan xede horretarako erabil daitekeen aurrekontu maximora iritsi artekoak izango dira.
6. Finantzaketa-iturria: udal-aurrekontua.
7. Diru-laguntza emateko prozedura: lehia librea eta aurrekontuan izenez ageri diren erakundeentzako emakida zuzena.
8. Jarduketa-plana: deialdiari dagozkion oinarriak zehaztuko dira, eta diru-laguntza izendunen esleipena arautzeko sina daitezkeen lankidetzak-hitzarmenak egingo dira.
9. Jarraipenerako eta ebaluazio jarraiturako erregimena: ekintzen eta lortutako helburuen memoria teknikoa, eta memoria ekonomikoa.

ZK	XEDEA	HARTZAILEAK	EMAKIDA MODALITAT EA	HELBURUAK ETA ONDORIOAK	EXEKUZIO EPEA	AURREIKUSITAKO AURREKONTUA	EZARPENA AURREKONTUAN	ADIERAZLEAK
1	Inma proiektuari diru-laguntza	Biodonostia Institutua Elkartea	Emakida zuzena	Ingurumenaren kutsatzaile garrantzitsuenen papera eta haurren hazkunde eta garapenean duten ondorioak aztertzeko proiektuan laguntzea,	Urterokoa	2020 ekitaldia: 1.800 € 2021 ekitaldia: 1.800 € 2022 ekitaldia: 1.800 €	7000.481.170.00.01	Egindako azterlanak eta bere irismena.
2	Albaitaritza diru laguntzak	Urretxuko nekazal ustiategiak	Lehia librea	Urretxuko Nekazal Ustiategietako abeltzaintza karga mantentzea	Urterokoa	2020 ekitaldia: 8.000 € 2021 ekitaldia: 8.000 € 2022 ekitaldia: 8.000 €	7100.480.419.00.01	Tratatuko animalia kopurua.

**VIII.ERANSKINA**  
**EKINTZAILAZA SUSTATZEKO ETA ENPRESA-LEHIAKORTASUNA**  
**HOBETZEKO DIRU-LAGUNTZAK**

1. Helburu estrategikoa: jarduera ekonomikoa sustatzea, enpresa- lehiakortasunari eta ekintzailatzari lagunduz.
2. Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak:
  - Udalerriko enpresa-ehunaren lehiakortasuna eta berrikuntza hobetzen laguntzea.
  - 4.0 industriarako aldaketa bultzatzea.
  - Tokiko ekintzailatza bultzatzea bai metalurgiarekin lotutako sektore tradizioaletan, bai lehen sektorean, sektore soziosanitarioan nahiz sektore logistikoan.
3. Diru-laguntzaren epealdia: 2020-2022 aldia.
4. Laguntzak zer sektoretara zuzentzen diren: Urretxuko enpresak eta pertsona ekintzaileak.
5. Gauzatzeko aurreikusitako kostuak: onartuko den aurrekontuan jasotako aurrekontu-baliabideen gehienekora iritsi artekoak izango dira aurreikusitako kostuak.
6. Finantzazio-iturriak: udalaren aurrekontua.
7. Diru-laguntzak emateko prozedura: lehia librea.
8. Ekintza-plana: deialdiaren oinarriak prestatuko dira.
9. Jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egiteko erregimena: ekintzen eta lortutako helburuen txosten teknikoa, eta txosten ekonomikoa. Adierazleak: sortutako enpresen kopurua / egindako inbertsioak kopurua (€) / Urretxun ezarritako enpresen/ lokala alokatzen duten enpresa kopurua.

ZB	XEDEA	HARTZAILEAK	EMAKIDA MODALITAT EA	HELBURUAK ETA ONDORIOAK	EXEKUZIO EPEA	AURREIKUSITAKO AURREKONTUA	EZARPENA AURREKONTUAN	ADIERAZLEAK
1	Enpresak sortzeko laguntzak	2020, 2021 eta 2022. urtean eta Urretxuko udalerrian, JEZn lehen alta ematen duten persona fisiko edo juridikoak.	Lehia librea	Enpresa berriak sortzea sustatu.	Urterokoa	2020 ekitaldia: 5.000 € 2021 ekitaldia: 5.000 € 2022 ekitaldia: 5.000 €	1000.471.433.00.01	Sortutako enpresa kopurua.
2	Alokairuentzako laguntzak	Enpresa gazte eta berritzaileak, industri, produkzio edota zerbitzu jarduerak egiten dutenak, eta bere egoitza soziala Urretxun jartzea nahi dutenak	Lehia librea	Lehiakortasuna eta berrikuntza sustatzea. 4.0 industriadunaldatzeko sustapena	Urterokoa	2020 ekitaldia: 5.000 € 2021 ekitaldia: 5.000 € 2022 ekitaldia: 5.000 €	1000.471.433.00.01	Lokalak alokatzen duten enpresa kopurua.
3	Inbertsiorako laguntzak	Urretxun kokatutako enpresak	Lehia librea	Lehiakortasuna eta berrikuntza sustatzea. 4.0 industriadunaldatzeko sustapena	Urterokoa	2020 ekitaldia: 6.000 € 2021 ekitaldia: 6.000. € 2022 ekitaldia: 6.000 €	1000.471.433.00.01	Egindako inbertsioak (€)